



Indarrak batu eta elkarlanean aritzeko asmotan, auzoko hiru elkartet bat egin dute.

Lehiakortasuna lagun, eskaintza ugaritzera datoz Aieteko jaiak

«Indarberrituta» eta «ilusio mordoarekin» datoz Aieteko jaiak. Jai batzordea osatu berri dute, antolakuntza eta eskaintza sendotzeko asmotan. Berritasunak berritasun, adin guztientzako jai euskaldun, parekide eta irekiak egingo dituzte gaurtik hilaren 20ra bitarte.

📍 Olatz Balda Sagarzazu

📷 Aieteko jai batzordea

Urtarrilaren antzera, ikasturte hasiera goranzko aldapa mal-kartsutzat dute askok. Bada, Aieten, orpoz orpo hartu dute sasoi hori, eta txapelketa bilakatu: kilometro bertikala egingo dute Aieteko parkean zehar: «Herri lasterketa bat izango da, eta auzotarrak egongo dira batik bat. Inork ez dezala pentsa sekulako marka egiteko lasterketa denik, baina baten

bat asmo horrekin badator, ongi etorria izango da», adierazi du Julen Barriuso Aieteko jai batzordeko kideak.

Aurten, eskaintza zabalarekin bete dute egitaraua, eta txapelketak dira nagusi. Sukaldaritza eta kirol jarduerekin josi dute programazioaren tarte handi bat, elastikoa izerditzea bezain garrantzitsutzat baitute sabela ondo betetzea. Hala, azken urteotako

dozena erdi lehiaketei paella lehiaketa, aipatutako kilometro bertikala eta padel txapelketa «arrakastatsua» gehitu zaizkie: «Festok asko dute gure ilusiotik eta erokerietatik», adierazi du jai batzordeko kideak.

Lehiakortasuna nagusitzen den jardueretan ez ezik, gainerakoan ere izango dira berritasunak. Aurten, haurrentzako puzgarriak izango dituzte aurrenekoz Hiru Damatxo plazan eta Kalapie elkartearekin bizikleta festa antolatuko dute gune berean. Bigarren asteburuan, berriz, 80 kidez osatutako Mindegia abesbatzak emanaldia eskainiko du Miramongo anfiteatroan: «Oso eszenatoki polita da eta berezia izango da hainbeste jenderekin ikustea», gaineratu du Barriusok.

Auzotik eta auzoarentzat

Antolakuntzan ibili diren kideak «ilusio mordoarekin» antolatu dituzte jaiok, izan ere, lehen aldia dute jai batzorde gisa. Orain arte, Lantxabe elkarte, Aieteko Euskara Batzordea eta ACD kirol elkarte arduratzen ziren prestaketaz, «bakoitza bere aldetik». Kide gazteak sartu zirenez geroztik, baina, indarrak batzeko eta eragileen arteko lana sendotzeko hautua egin dute: «Jai batzordea berria denez, lehengo lantaldeetatik tiraka aritu gara azken hilabeteotan eta forma eman behar diogu oraindik. Hala, bigarren asteburuaren antolaketa Lantxabe elkarteak hartu du; aurreko asteburua, berriz, gazteek, euskara batzordeak eta ACD elkarteak».

Antolakuntza eredia aldatzeak, hain zuzen, irekiera puntu bat eman dio taldeari, eta horrek, era berean, auzoko norbanakoen ideia fresko eta berritzaileak sartzeara eragin du: «Gure asmoa asanbladak eta deialdi irekiak egitea da, auzotik eta auzoarentzat egindako jaiak direnez, auzotarrak bertan egon behar direlako parte hartzen», azaldu du Barriusok. Bide horretan, ezinbestekoa izan dute komertzioen eta boluntarioen babesa: «Bakoitzak ahal duen neurrian laguntzen du, eta asko estimatzen da bizilagunek eta komertzioek egiten duten ekarpen oro». ●



OSTIRALA 6

17:00 · Topalekuan

Herri jokoan finalak.

16:00-19:00 · Hiru Damatxon

Kalapie bizikleta festa eta puzgarriak.

18:30 · Hiru Damatxon

Askaria.

19:00 · Hiru Damatxotik

Kalejira auzoan zehar.

20:30 · Jolastokin

Brindisa jaien hasiera ospatzeko.

21:30 · Jolastokin

Kontzertuak: Ttaka, Speed, La Txama eta Little Orphan.

02:00

Sokasalto herrikoia.

LARUNBATA 7

10:00-12:00 · Etxadiko kiroldegian

Aieteko padel putzu lehiaketa.

11:00 · Aieteko parkean

Aieteko II. Krosa.

11:30 · Jolastokin

Lindy Hop dantza saioa.

12:00 · Jolastokin

Txirikorda tailerra Noa ile apaindegia-
ren eskutik.

13:00 · Jolastokin

Kros eta padel sari banaketa.

13:30 · Jolastokin

Paella lehiaketa.

14:30 · Jolastokin

Herri bazkaria.

16:00 · Jolastokin

Bazkalosteko jokoak.

16:30 · Jolastokin

Mojito lehiaketa eta dastaketa.

17:00 · Jolastokin

Mus finalak.

17:00 · Aieteko parkean

Entzierro txikia.

17:00-20:00

Aieteko danborrada, Joselontxos txarangarekin.

17:30 · Aieteko parkean

Natura Jolaseanen eskutik harri margoketa
tailerra.

20:00-03:00 · Jolastokin

DJ festa.

22:00 · Etxadi tabernan

Futbolin txapelketaren finala.

SOLA
SEAN
LOG-
OPED-
IA



Ondo pasa
Aieteko jaiak!



SOLASEAN LOGOPEDIA

www.solaseanlogopedia.com Tel.: 696-74 52 70

Borroto, 16 (Etxadi), Aiete, 20009 Donostia





IGANDEA 8

11:00

Estropadak: Kontxako Bandera pantaila handian eta barrikote.

12:15 · Jolastokin

V. Patata Tortilla Lehiaketa.

13:00

Tortilla lehiaketaren sari banaketa eta komertzioen opariaren zozketa.

OSTEGUNA 12

17:30 · Hiru Damatxon

Krisark akademiaren eskutik collage tailerra.

OSTIRALA 13

17:00-20:00 · Otxanda plazan eta Munto plazan

Haur jolasak.

19:00 · Auzoko parrokian

Kanpai hotsak.

LARUNBATA 14

Santa Kruz eguna

10:30 · Aieteko parkean

Aieteko kilometro bertikala.

11:00

Meza nagusia. Elizako Gurutzeaga abesbatza.

11:00 · Jolastokin

'Manuel Matxain' VI. Bolo Txapelketa.

13:00 · Jolastokin

Toka txapelketa.

14:30 · Topalekun

Herri jolasen sari banaketa eta jubilatuen elkarteen bazkari herrikoia.

18:00 · Munto plazan

Potxin eta Patxin *Herri Tropikala* antzezlan.

18:00-20:30 · Katxola baserrian

Festa eta erromeria herrikoia.

18:00-19:00 · Miramonen

Mindegia abesbatza taldeen emanaldia. Thierry Biscary.

19:00 · Katxola baserrian

Erromeria: Ezeiza ahizpak.

IGANDEA 15

10:30-11:30

Diana udalerriko txistulari taldearekin.

11:00-14:00

Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak eta Donostiako kantujira. Ibilbidea: Hiru Damatxo, Etxadi, Kultur Etxea eta Muntoko plaza.

14:30 · Topalekun

Bazkari herrikoia.

OSTIRALA 20

18:30-19:30 · Aieteko kultur etxean

Los Guachinanguitos abesbatza. *Mary Poppins*-en parodia alai.